LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

# UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 10/2021

L A S A R T E - O R I A KO UDALBATZARRAK **2021eko EKAINAREN 25ean** EGINDAKO **EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN EXTRAORDINARIA Y URGENTE** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **25 DE JUNIO DE 2021**.

ETORRITAKOAK: / ASISTENTES:

| | | |
|---|---|---|
| ALKATE-LEHENDAKARIA:<br>EL ALCALDE-PRESIDENTE: | D. Agustin Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTE DE ALCALDE: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | Dª. Nagore Duran Urbistondo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Iñigo Zabaleta García jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jon Martin Tejeria jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Uxue Loinaz Urruzola and. | (EH BILDU) |
| | D. Joxe Ramon Pikabea Bereziartua jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Estibaliz Garmendia Arrieta and. | (EH BILDU) |
| | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Boris Nogales Benito jn. | (EAJ-PNV) |
| | Dª. Estitxu Alkorta Barragan and. | (EAJ-PNV) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ELOP) |
| | Dª Tania Rodriguez Gonzalez and. | (ELOP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO: | D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

EZ ETORRIAK: / NO ASISTENTES

| | | |
|---|---|---|
| ALKATEORDEA:<br>TENIENTE ALCALDE: | D. David Mateos Jimenez jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR: | D. Ion Murua Guinea jn. | |

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2021eko EKAINAREN 25eko 09:00 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Agustin Valdivia Calvo Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 09:00 horas del día 25 de JUNIO de 2021, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Agustín Valdivia Calvo, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- DEIALDIAREN URGENTZIA ONARTZEA.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ ONARTZEN du urgentzia.

1.- APROBACIÓN DE LA URGENCIA DE LA CONVOCATORIA.

Sometida a votación la urgencia la convocatoria del Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD APRUEBA la misma.

2.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETAREN KONTUA EMATEA.

Alkateak esan du ekainaren 15eko datarekin dekretuaren bidez honako hau ebatzi zela:

Lehenengoa.- Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2021eko Aurrekontu Orokorraren aurreikuspenetara egokitzeko, 2021eko martxoaren 17an egindako bilkuran, 2021-2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea, I. eranskinean jasotzen diren aldaketak zehaztuta.

Bigarrena.- Diru-laguntzen 2021-2023 Plan Estrategikoaren testu berria udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

2.- DACIÓN DE CUENTA DE MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES.

El Sr. Alcalde dice que mediante decreto de fecha 15 de los corrientes se resolvió lo siguiente:

Primero.- Con el fin de adecuar el mismo a las previsiones del Presupuesto General de 2021, aprobado por el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 17 de marzo de 2021, aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2021-2023, con el detalle de las modificaciones que se recogen en anexo I.

Segundo.- Ordenar la publicación del nuevo texto del Plan Estratégico de Subvenciones 2021-2023 en la página web municipal.

El Pleno se da por enterado.

3.- LASARTE-ORIAKO UDALAK EMAN BEHARREKO 2021EKO APARTEKO LAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIA, UDALERRIKO MERKATARITZAKO, OSTALARITZAKO ETA ZERBITZU PERTSONALETAKO ESTABLEZIMENDUEN JARDUERA EKONOMIKOARI EUSTEN LAGUNTZEKO: ERAGOZPENA KENTZEA ETA ONARTZEA.

3.- BASES Y CONVOCATORIA DE AYUDAS EXTRAORDINARIAS 2021, A CONCEDER POR EL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA, PARA FAVORECER EL MANTENIMIENTO DE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA DE LOS ESTABLECIMIENTOS DEL COMERCIO, HOSTELERÍA Y SERVICIOS PERSONALES, DEL MUNICIPIO: LEVANTAMIENTO REPARO SUSPENSIVO Y APROBACIÓN.

Sozioekonomia Batzordeak 2021eko ekainaren 24an egindako bilkuran emandako diktaminaren berri ematen da.

Diktamina ikusita Antxordoki jaunak eskatzen du bozketa bi zatitan egitea, batetik eragozpena kentzearena eta bestetik onarpena bera.

Alkate jaunak ez du arazorik ikusten horrela egiteko. Beraz, bi puntuak aparte bozketzen dira.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Socioeconomía en sesión celebrada el 24 de junio de 2021.

Visto el dictamen el Sr. Antxordoki pide que se vote el levantamiento del reparo por un lado y la aprobación por otro.

El Sr. Alcalde no ve problema para hacerlo asi, por lo tanto se hace votación aparte.

Bozkatzera jarrita etendura kentzearena, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamaika botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 4 EH BILDU) eta bost abstentziorekin (3 EAJ-PNV, 2 ELOP) ONARTZEN DU hura.

Sometido a votación el lenvantamiento del reparo suspensivo el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con once votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 4 EH BILDU) y cinco abstenciones (3 EAJ-PNV, 2 ELOP) APRUEBA dicho levantamiento.

En el turno de explicación de voto toma la palabra el Sr. Nogales y contesta el Sr. Alcalde.

A continuación se vota la aprobación de las bases.

Antes de la votación toma la palabra el Sr. Nogales y contesta la Sra. Fernandez.

Lasarte-Oriako Udaleko Osoko Bilkurak bozketa egin ondoren, aho batez honako ERABAKI HAU hartzen du:

Lehenengoa eta bakarra: Lasarte-Oriako Udalak eman beharreko 2021eko aparteko laguntzen oinarriak eta deialdia onartzea, udalerriko merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduen jarduera ekonomikoari eusten laguntzeko.

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD ACUERDA lo siguiente:

Primero y único: Aprobar las bases y convocatoria de ayudas extraordinarias 2021 a conceder por el Ayuntamiento de Lasarte-Oria para favorecer el mantenimiento de la actividad económica de los establecimientos del comercio, hostelería y servicios personales, del municipio.

Boto azalpeneko txandan Martin jaunak hartzen du hitza.

4.- LASARTE-ORIAN MERKATARITZA, OSTALARITZA EDO ZERBITZU PERTSONALEKO ENPRESA TXIKIAK SORTZEKO LAGUNTZA EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK ONARTZEA, KONKURRENTZIA ASKEKO ERREGIMENEAN.

Sozioekonomia Batzordeak 2021eko ekainaren 24an egindako bilkuran emandako diktaminaren berri ematen da.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aho batez honako ERABAKIA hartzen du:

Lehenengoa eta bakarra: Lasarte-orian merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu pertsonaletako enpresa txikiak sortzen laguntzeko konkurrentzia askeko erregimenean diru-laguntzak emateko oinarri espezifikoak onartzea.

4.- APROBACIÓN BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES EN RÉGIMEN DE LIBRE CONCURRENCIA DE APOYO A LA CREACIÓN DE PEQUEÑAS EMPRESAS DE COMERCIO, HOSTELERÍA O SERVICIOS PERSONALES EN LASARTE-ORIA.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Socioeconomía en sesión celebrada el 24 de junio de 2021.

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD ACUERDA lo siguiente:

Primero y único: Aprobar las bases específicas para la concesión de subvenciones en régimen de libre concurrencia de apoyo a la creación de pequeñas empresas de comercio, hostelería o servicios personales en Lasarte-oria.

5.- BOZERAMAILEEN BATZARRAK AURREZ ONARTU IZANIK UDALBATZARREAN TRATATU AHAL IZATEKO GEHITUK AURKEZTUTAKO MANIFESTUA: "LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA, EKAINAREN 28KOA".

Ekainaren 28ko LGBTI harrotasunaren nazioarteko egunean, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualek, bai eta giza eskubideen defendatzaile diren pertsonek ere, gure eskubideen aitorpenean lortutako aurrerapausoak ospatzen ditugu. Horrez gain, erabateko berdintasunean bizitzeko aldarrikapena egiten jarraitzen dugu. Eta egun honen harira, Gehituk, Euskadiko LGBTI pertsonen elkarteak honako hau adierazten du:

1.- Euskal erakundeek, bai eta gizartearen gehiengoak ere, LGBTI pertsonen duintasunerako eskubidea onartu badute ere, oraindik mekanismo eraginkorrak ezartzea falta da eskubide horiek bermatzeko eta, bereziki, homofobia desagerrarazteko. Basauriko gazte batek hilabete honetan jasan duen eraso homofoboa horren adibide garbia da.

5.- PREVIA ACEPTACIÓN DE SU TRATAMIENTO EN EL PLENO POR LA JUNTA DE PORTAVOCES MANIFIESTO PRESENTADO POR GEHITU: "DÍA INTERNACIONAL DEL ORGULLO LGTBI DEL PRÓXIMO 28 DE JUNIO".

Ante el día internacional del orgullo LGBTI del próximo 28 de junio, en el que las personas lesbianas, gais, trans, bisexuales e intersexuales, así como el conjunto las personas defensoras de los derechos humanos, celebramos los avances conseguidos en el reconocimiento de los derechos de aquellas, y reivindicamos todo lo que aún queda para la consecución de la igualdad plena en el disfrute de sus derechos y para mejorar los sistemas de garantía de esos derechos, Gehitu, asociación vasca de personas LGBTI manifiesta lo siguiente:

1.- Si bien las instituciones vascas, así como la inmensa mayoría de la sociedad, han reconocido y asumido el derecho a la dignidad de las personas LGBTI y lo que ello conlleva en materia de derechos, falta implementar mecanismos eficaces para su garantía y en especial para la erradicación de la homofobia, es decir del odio contra dichas personas, como lo muestra la reciente agresión a un joven gay de Basauri a manos de una manada de

Horregatik, premiazkoa da Eusko Legebiltzarrak lege integral bat onartzea, besteak beste, berdintasun sozialerako eta osotasun fisiko eta moralerako oinarrizko eskubideak bermatzeko. Lgbtifobia elikatzen duten jarrerei aurre egiteko, ezinbestekoa da sexu-joeren eta genero-identitateen errespetuaren alde lan egitea gizarteko esparru guztietan, bereziki, hezkuntzaeremuan, baina baita bizitzako beste eremu batzuetan ere, adibidez lanean eta adineko pertsonen eta migratzaileen lan esparruan.

2.- Legeek oraindik ez dituzte behar bezala aitortzen transexualen berdintasunerako eta nortasunaren garapen askerako oinarrizko eskubideak. Horretarako, ezinbestekoa da trans pertsonei buruzko estatu-lege bat onartzea. Lege horrek transexualitatea behin betiko despatologizatu behar du eta Estatuko legeetan egokiak diren aldaketak egin behar ditu. Adibidez, Erregistro Zibila arautzen duen legeak, nortasunaren garapen askerako konstituzio-eskubidea bermatu beharko luke.

3.- ILGAren, Amnistia Internazionalaren edo Human Rights Watch-en urteko txostenek LGBTI pertsonek mundu mailan dituzten eskubideen egoera tamalgarria erakusten dute. Dozenaka herrialdetan, lesbiana, gay edo transexual izatea delitua da oraindik ere, heriotza-zigorrarekin zigortzen da, eta gorroto eta baztertze maila jasanezinak dira. Europako zenbait herrialdetan ere gertatzen da hori guztia. Horregatik, nazioarteko lankidetza eta Europar Batasunaren, Europako Kontseiluaren eta Nazio Batuen inplikazio handiagoa behar-beharrezkoak dira.

4.- Covid 19 birusaren pandemiak beste pandemia bat agerian utzi du: HIESarena. 80ko hamarkadaren hasieran piztu zen arren, oraindik ez dago birus horri aurre egiteko txertorik. Gaur egungo testuinguruan, HIESaren pandemiari aurre egiteko, beharrezkoa da politika publikoak indartzea, GIBa duten pertsonei behar duten arreta ematea, haien aurkako diskriminazioa saihestea, eta prebentzio-arloan behar adina baliabide eskaintzea. Era berean, baliabide

homófobos.

Urge, por ello, la aprobación por parte del Parlamento Vasco de una ley integral para garantizar, entre otros, los derechos fundamentales a la igualdad social y a la integridad física y moral. Para combatir los valores que alimentan la *lgbtifobia* resulta imprescindible trabajar a favor del principio de respeto a la diversidad de orientaciones sexuales y de identidades y expresiones de género en todos los ámbitos de la sociedad, y en particular en el ámbito educativo y su entorno, así como en otros espacios de la vida, como el laboral, y los relativos a las personas mayores y migrantes.

2.- Las leyes no reconocen aún debidamente los derechos fundamentales a la igualdad y al libre desarrollo de la personalidad de las personas transexuales. Para ello es indispensable la aprobación de una ley estatal concerniente a esas personas, que despatologice definitivamente la transexualidad, y lleve a cabo las modificaciones pertinentes en las leyes estatales, principalmente la reguladora del Registro Civil, para garantizar, entre otros, el derecho constitucional al libre desarrollo de la personalidad, que se plasma en la denominada autodeterminación de género.

3.- Diferentes informes anuales, de ILGA, de Amnistía Internacional o de Human Rigths Watch, muestran un estado lamentable de los derechos de las personas lgbti a nivel mundial. En decenas de países sigue siendo delito ser lesbiana, gay o transexual, castigado hasta con la pena de muerte, y los niveles de odio y rechazo social son insoportables, incluso en países europeos. Por ello, la cooperación internacional y una mayor implicación de la Unión Europea, el Consejo de Europa y de los organismos de Naciones Unidas son absolutamente necesarias.

4.- La pandemia del covid-19 ha eclipsado otra pandemia, la del sida, que emergió a comienzos de los 80 y aún no hay vacuna para combatirla. En el contexto en el que estamos, es necesario insistir en la necesidad de reforzar las políticas públicas para hacer frente a la pandemia del sida, dar la atención debida a las personas con VIH, evitar la discriminación contra ellas, y destinar

gehiago erabili behar dira planetako herrialde pobreetan GIB birusaren, estigmaren eta birusa duten pertsonen aurkako diskriminazioa iraultzeko.

recursos suficientes y eficaces en materia de prevención. Resulta necesario, asimismo, dedicar más medios a la investigación y a la lucha en los países pobres del planeta contra el sida, el virus VIH y el estigma y la discriminación contra las personas portadoras de dicho virus.

Hori guztia kontuan hartuta, Gehituk euskal erakunde guztiei eskatzen die ekainaren 28ko adierazpen instituzionala onar dezatela, idatzi honetan egindako aldarrikapenak jaso eta horiek eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren politika publikoak indartzeko edo martxan jartzeko.

En base a todo ello, Gehitu insta a todas las instituciones vascas a que aprueben el día 28 de junio declaraciones institucionales que recojan las reivindicaciones formuladas en este escrito y que habiliten o refuercen las políticas públicas necesarias para el cumplimiento eficaz de las mismas.

Horrez gain, Gehituk herritarrei eskatzen die sexu- identitateen eta genero-adierazpenen aniztasuna errespetatzeko konpromisoa areagotu dezatela, benetako berdintasunean bizitzeko eskubidea babestuz eta LGBTI+ pertsonen kontrako diskriminazio edo indarkeria adierazpenak baztertuz.

Asimismo, Gehitu pide a la ciudadanía vasca que intensifique su compromiso en el día a día con el respeto a la diversidad de orientaciones sexuales y de identidades y expresiones de género, manifestándose abierta y públicamente a favor del derecho a una vida en igualdad de las personas LGBTI, así como rechazando cualquier expresión de discriminación o violencia contra sus derechos fundamentales.

Horren adibide, Basaurin ekainean izandako eraso homofoboaren aurrean herritarrek eskainitako babesa eta gertaeraren gaitzespen irmoa hunkigarria eta txalogarria izan da.

En este sentido, cabe subrayar la movilización de la ciudadanía de Basauri contra la agresión homófoba que se produjo en dicha localidad, tan aleccionadora como emocionante.

Bozkatzera jarrita Gehituk aurkeztutako adierazpena, Lasarte-Oriako Udalbatzarral AHO BATEZ ONARTZEN du hura.

Sometida a votación la declaración presentada por Gehitu, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD APRUEBA la misma.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 09:28 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 09:28 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.